

**"50 ARTE EDERRAK / 50 URTE EDERRAK" OLANAN ESKU HARTZE ARTISTIKO
BIDIMENTSIONALAK EGITEKO II DEIALDIA**

2020/2021 ikasturtean zehar UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateak 50 urte egingo ditu, orduko Bilboko Arte Ederren Eskolako lehenengo ikasturtea hasi zenetik. Data hori ospatzeko programaturiko jardueren artean, deialdi hau argitaratzen da, fakultateko eraikin nagusiaren fatxadan dagoen "50 ARTE EDERRAK / 50 URTE EDERRAK" olanan esku hartzeko proposamen bidimentsionalak aukeratzeko, gehienez hiru.

1.- Parte hartzaileak

Deialdia zuzenduta dago 2020/2021 ikasturtean UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean **ofizialki matrikulatuta dauden graduako eta graduondoko ikasleei.**

Efemeridea ohiz kanpoko denez, **fakultatean ikasketak edozein urtetan eta espezialitatetan amaitu zituzten ikasle ohiek ere** parte hartu ahal izango dute.

Proposamenak banaka edo taldean aurkez daitezke.

Proposamena talde batek egiten badu, ordezkari bat izendatu beharko da komunikazioa errazteko.

2.- Proposamenen ezaugarriak

Gai askeko esku hartze bidimentsionala 290 x 120 cm-ko olana baten gainean egiteko planteatu beharko da, formatu horizontalean, eta fakultateko eraikin nagusiaren fatxadan dagoen "50 ARTE EDERRAK / 50 URTE EDERRAK" olanaren gainean jarriko da.

Erabiliko diren materialak luze irauteko modukoak izan beharko dira, kontuan hartuta olana aire zabalean egongo dela hilabetez, gutxi gorabehera.

Pertsona edo talde bakoitzak proposamen bat baino gehiago aurkez dezake.



3.- Ekoizte baldintzak

Aukeratutako proposamen bakoitzak 800 euro jasoko ditu, lana egiteko materialetarako eta laguntza gisa.

290 x 120 cm-ko olana, fatxadan dagoen olanatik aparteko pieza denez, norberaren estudioan edo tailerrean egin ahal izango da, proposamena in situ landu beharrik gabe.

4.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ondoren aipatzen diren dokumentuak pdf formatuan bidaliko dira posta elektronikoz, helbide honetara:

ecultural.bellasartes@ehu.eus

-CV laburra eta datu pertsonalak.

-Portfolio bat, aurretik egindako hamar proiektuekin gehienez.

-Esku hartzearen proposamen zehatza DIN A3 formatuan.

-Erabiliko diren materialak, bermatuta proposamena luze irauteko modukoa dela.

-Fotomuntaketa edo zirriborroa.

5.- Proposamena aurkezteko epea

Proposamena aurkezteko epea otsailaren 22an amaituko da.

Proposamenak epaimahai batek ebaluatuko ditu. Epaimahaiko kideak izango dira fakultateko dekanoa edo hark bere ordezkari izendatuko duen pertsona, Unibertsitate Hedakuntzako dekanordea, Plangintzako eta Ekonomia Gaietako dekanordea, eta ikasleen ordezkari bat.

6.- Aukeratutako proposamenak jartzea

Gehienez ere hiru proposamen aukeratuko direnez, lanak jartzeko egutegi bat zehaztuko da aldezturik, fakultatearekin adostuko dena, kontuan hartuta lehenengo esku hartzea 2021ko apirilean jarriko dela eta azkena ekainean.

Onuradunek konpromisoa hartzen dute betetzeko ikastegiak helaraziko dizkien arauak esku hartzea garatzeko. Era berean, jatorrizko proposamena aldatuz gero, aldaketen berri emango dute.

Onuradunek ere izango dituzte egindako lanaren jabetza intelektualaren eskubideak.

Lana UPV/EHUren ondare artistikoaren parte izatera pasatuko da.

7.- Oinarriak onartzea

Deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek eta epaimahaiak hartzen dituen erabakiak onartzea eta horiekin erabat ados egotea.

Oinarri hauetan jasota ez dauden egoerak antolatzaileek ebatziko dituzte, egokien irizten zaien moduan.

8.- Kontsultak eta zalantzak

Zalantzak argitzeko edo kontsultak egiteko, idatzi helbide hauetako batera:

-ecultural.bellasartes@ehu.eus

-arantza.lauzirika@ehu.eus